

Urteko txostena12

AMVISA Vitoria-Gasteizko Udal Urak SAU

Urteko txostena12

AMVISA Vitoria-Gasteizko Udal Urak SAU

ARGITARATZAILEA:

Vitoria-Gasteizko Udala

Amvisa – Gasteizko Udal Urak, SAU (AMVISA)

Lehendakariaren Gutuna	3
01 ENPRESAREN AURKEZPENA	5
01.1 Zer da AMVISA?.....	6
01.2 Barne antolakuntza	8
01.3 Zerbitzuaren lurraldea eta biztanleria.....	11
01.4 Zerbitzuaren datu nagusiak 2012n	12
02 GIZA TALDEA	13
03 URAREN ZIKLO OSOA	17
03.1 Edateko ura hartu eta ekoiztea	18
03.2 Edateko uraren kalitatea.....	22
03.3 Edateko uraren banaketa	27
03.4 Saneamendua	30
03.5 Ur zikinak araztea	32
03.6 Trataturako ur zikinen kalitatea.....	35
04 ZERBITZUAREN ADMINISTRAZIOA	37
04.1 Kudeaketa komertziala.....	38
04.2 Bezeroarekiko atentzioa.....	41
04.3 Zerbitzuaren administrazioaren beste alderdi batzuk	43
05 GIZARTE ETA INGURUMENAREKIKO KONPROMISOA	45
05.1 Ingurumena.....	46
05.2 Gizartearekiko konpromisoa	48
06 INFORMAZIO EKONOMIKOA	51
06.1 Kudeaketa ekonomiko-finantzaria	52
06.2 Urteko kontuak	58

**LEHENDAKARIAREN
GUTUNA**

00

Lehendakariaren Gutuna

2012. urtea betiko izango dugu gogoan Vitoria-Gasteizen Europako Gutun Berdearen Hiriburuak ekarritako arrakasta eta erantzukizuna gozatu dugulako. Vitoria-Gasteiz bezalako hiri batentzat, Europa osoko ingurumen eta iraunkortasuneko politiketan erreferentziazko hiria izatea oso satisfazio handia da

Jarduera honetan AMVISAK parte hartu du eta hala jarraituko du egiten, ura hornitzeko zerbitzu publikoa bermatzeko oinarrizko helburua beteta. Horrela, ura bezalako ondasun mugatuaren erabilera zentzuzko izaten eta horrek gure ingurune naturalean eragin murriztagoa edukitzen laguntzen du. Hona hemen konpromiso horren bi adibide: batetik, kontsumo orokorraren eta, zehatz-mehatz, etxeko kontsumoaren murrizketa garrantzitsuak (hiriguneko pertsona eta egun bakoitzeko 110 litro); bestetik, hondakinen kudeaketaren hobekuntza eta araztegiko lohien tratamendua.

Gainera, uraren kudeaketan, azken urteotan, ez da horniduraren bermea handitzen duten azpiegituretan eta sarearen berrikuntzan egindako inbertsioa baztertu. Uraren Euskal Agentziarekin (URA) hitzarmen garrantzitsuak sinatu ditugu. Horren ondorioz, Albinako Urtegiko ubide berria egiten amaitu da aurten, edo Abetxukoko by-passeko obra hasi berria, Gasteizetik Zadorra ibaiaren ibilgua hobetzeko aukera emango duena.

Barne kudeaketaren prozedurei dagokienez, gure enpresa ERP kudeaketa eredu berriari egokitzeko prozesu batean murgilduta dago. Haren ezarpena amaitutakoan, izapideak egiteko modua, fakturazioak eta Zerbitzua eskaintzeko informazioaren erabilera hobetuko dira. Hori guzti hori, bezeroarenganako orientabidea enpresaren identitate-ikurretari bat izan behar da.

Azkenik, AMVISAK uraren gestioak dakartzan kostu guztiak gehitu ditu bere salneurri berrietan, indarrean dagoen Europako araudian ezarritakoaren arabera. Hori egin ahal izan da Administrazio Kontseiluan 2009-2012 lau urtekoan tarifen hazkunde progresiboa ezartzeko hartutako erabakiari esker, Zerbitzuaren bideragarritasun ekonomikoa bermatuta.

Idoia Garmendia Telleria
AMVISAREN lehendakaria

ENPRESAREN AURKEZPENA

01

01.1 Zer da AMVISA?

Sozietatearen xedea

Amvisa – Gasteizko Udal Urak SAU Pertsona bakarreko udal enpresa pribatu (AMVISA) honen xedea Vitoria-Gasteizen, bere jurisdikziopeko herrietan eta hainbat udalerrri mugakidetan Uraren Ziklo Osoaren Zerbitzu Publikoa eskaintzea da:

- Hornidurak edateko ura hartzea, biltegiatzea, edateko ur bihurtzea eta banatzea barne hartzen ditu.
- Saneamenduak hurrengo atalak barne hartzen ditu: ur zikinak estolderiaren bitartez biltzea eta eramatea, araztea eta berreraikitzea, baita lohien eta hondakinen tratamendua ere.

AMVISAk 1970etik eskaintzen du bere zerbitzua Vitoria-Gasteizen.

Orientabide estrategikoa

Eginkizuna

Arabarrei eta, batik bat, Vitoria-Gasteizi, uraren ziklo osoa kudeatzeko zerbitzu orokorra ematea eta horri lotuta dauden gainerako beharizanei erantzuna ematea.

Ikuspegia

Uraren ziklo osoaren kudeaketan bikaintasuna lortzea:

- Bere zerbitzuak modu moderno eta efikazean eskainita.
- Gero eta mugatuago dauden baliabide naturalak kudeatuta.
- Sektorean eskumena duten beste enpresa eta herri erakunde batzuekin batera lan eginda.

Balioak

- Pertsonen parte hartze aktiboa: konpromisodun talde trebatu eta motibatua dauka.
- Gizartearentzako zerbitzua: kalitatea bermatuta, proiektu solidarioetan lagunduz, Ingurumena eta osasun publikoa errespetatuz.
- Aktiboki parte hartzen dugu herrietarako garapen iraunkorari buruz kontzientziatzeko lanean.
- Kalitatea: gure produktu eta prozesu guztietan.
- Berrikuntza: etengabeko hobekuntza eta garapen berriak gehituta, balio erantsi handiagoa emateko.
- Efizientzia: baliabide murratuen erabilera onena eranda.

1.- Gure burua prestatu, Arabako beste udalerrri batzuei zerbitzua eskaintzeko aukera izateko.

Krisialdian eta eraginkortasuna handitu behar den garaiotan egonda, badirudi uraren kudeaketan erakunde txikiek efizienteagoak direnekin bat egiteko joera nagusitu dela. Horregatik, AMVISAK bere burua prestatu behar du hori gertatzeko aukeraren aurrean. Epe laburrean, inguruko eremuetan zerbitzua eskaintzea bideragarria izan daiteke eta ildo horretan planteatutako ekimenei soluzioa eskaintzen jarraitu dezakegu.

2.- Uraren beste erakunde batzuekin elkarlanean eta lankidetzan aritu, eraginkortasuna, zerbitzua eta baliabideen kudeaketa hobetzeko aukera emanda, ezagutzak eta tresnak elkartrukatu.

Horretarako, elkarlanerako aukerak zehatz-mehatz eta banaka aztertuko dira. Hala, AMVISAREntzat ekarriko lituzkeen arazoak eta onurak argitzeko proiektu pilotu bati ekitea beharrezko deritzogu.

Zenbait arlotan (adibidez, Prestakuntza, Jakintzaren Kudeaketa, Garapenerako Lankidetzak edo Erosketak) lankidetzan aritzea proposatu da.

3.- Administrazio eta lan harremanak egokitu, antolakuntza zein lan harremanak malguago bihurtuta.

Erronka honetan hurrengo alorrak jorratzen dira: AMVISAK desjabetzeko duen gaitasunean aldaketak egiteko aukera aztertzea; diru bilketaren kudeaketa (tasa edo prezio publikoan oinarrituta fakturatzea eta fakturazio sistemari eustea ala hori aldatzea komeni diren aztertuta); eta gastua baimentzeko gaitasuna.

Lan arloari dagokionez, lan harremanetarako eremu berria ezartzea eta pertsonen motibazioa handitzeko behar diren tresnak erabiltzea beharrezko deritzogu.

4.- Planaren barruan giza baliabideak eta baliabide materialak aztertu, herritarren beharrei erantzuten dien zerbitzu ona eskaintzeko.

- Gaur egungo egoera eta egitura sendotzea, Zerbitzuaren kalitate mailari eusten saiatzen den bitartean eta ahaleginak erakundearen gaur egungo arriskuak murriztera bideratuta.
- Aurrekontua egonkortzea, langile kostuak handitzeak sozietatearen aurrekontu orokorra hazi gabe (hurrengo urteetan tarifen igoera, fakturatutako bolumenaren murrizketa, etab. gerta daitezkeela kontuan hartuta).
- Austeritate eta Modernizazio Planean oinarritutako barne egituraren berriztapena sustatzea, betiere, kostuak aurrezteko eta era berean eraginkortasuna handitzea ardatz izanda.

Bulego Nagusia

Antilletako pasabidea, 3-A behea
01012 Vitoria Gasteiz
T: +(34) 945 161000
F: +(34) 945 111000

Arakako EUA

N-240 Errepidea
6,3 Km. 7. Irteera
01510
T. +(34) 945 260086
F. +(34) 945 260487

Krispiñako UZA

Krispiña, z/g
01195
T. +(34) 945 290574

2012ko abenduaren 31ko Kontseiluaren osaera.**Alkatea-Lehendakaria**

Javier Maroto Aranzabal jaun txit gorena (PP)

Kontseilariak

Idoia Garmendia Telleria andrea (PP)

Miguel Garnica Azofra (PP) jauna

Ainhoa Domaica Goñi andrea (PP)

Manuel Uriarte Azcarraga jauna (PP)

Leticia Comeron Refojos andrea (PP) Zinegotzia

Alfredo Iturricha Yániz jauna (PP)

Marian Castellanos Sánchez andrea (PP)

Encina Serrano Iglesias andrea (PP)

Gorka Urtaran Agirre jauna (EAJ-PNV)

Alvaro Iturritxa Vélez de Elburgo jauna (EAJ-PNV)

Nerea Melgosa Vega andrea (EAJ-PNV)

Blanca Guinea Astoviza andrea (EAJ-PNV) Zinegotzia

Borja Belandia Fradejas jauna (EAJ-PNV)

Iñaki Prusilla Muñoz jauna (EAJ-PNV)

Patxi Lazcoz Baigorri jauna (PSE-EE)

Juan Carlos Alonso Ramírez de la Peciña jauna (PSE-EE)

Maite Berrocal Cebrián andrea (PSE-EE)

M. Angeles Gutierrez Ondarza andrea (PSE-EE) Zinegotzia

Peio Lopez de Munain Lopez de Luzuriaga jauna (PSE-EE) Zinegotzia

M^a Isabel Martínez Díaz de Zugazua andrea (PSE-EE)

Enrique Fernández de Pinedo Álvarez de Arcaya jauna (BILDU GASTEIZ)

Antxon Belakortu Preciado jauna (BILDU GASTEIZ)

Itziar Amestoy Alonso andrea (BILDU GASTEIZ)

Ane Aristi Alberdi andrea (BILDU GASTEIZ)

Iratxe Estibaliz López de Aberasturi Sáez de Vicuña andrea (BILDU GASTEIZ)

David Pina Jorge jauna (BILDU GASTEIZ)

Idazkaria

M^a Victoria Idoia Martínez Peñalba andrea

AMVISAREN kudeaketa organo nagusia da eta Vitoria-Gasteizko Udalaren osoko bilkurak osatzen du.

Bere funtzioak honako hauek dira:

- Administrazio Kontseiluko kideak izendatzea eta banatzea.
- Estatutuak aldatzea eta Sozietatea desegitea edo likidatzea, eraldatzea, bategitea, zatitzea edo beste sozietate batzuetan parte hartzea adostea.
- Kapital soziala handitzea edo murriztea; zorra edo obligazioak jaulkitzea; eta maileguak, hipotekak edo beste karga batzuk onartzea edo kitatzea.
- Inbentarioa, aurrekontua eta urteko kontuak onartzea.
- Kontu auditoreak izendatzea eta kargugabetzea.
- Merkataritzako legeriak eta Sozietate Anonimoen Legeak egotzitako gainerako funtzioak.

Batzar Nagusia 2 aldiz bildu zen 2012an.

Organo betearazle honetan gutxienez bederatzi kontseilari daude, gutxienez, eta hamahiru, gehienez (Batzar Nagusiak zehaztutakoaren arabera).

Kontseiluko kideen erdia baino bat gehiago Vitoria-Gasteizko Udalaren zinegotzi hautetsia izan behar da. Kontseilari karguaren iraupena lau urtekoa da. Kontseiluak zinegotziak diren bere kideen artean Sozietateko lehendakaria eta lehendakariordea izendatuko ditu.

Bere eginkizuna irizpideak ezartzea, jarraipena ematea eta, hala badagokio, Batzar Nagusiaren esku utzi behar diren gai guztiak onartzea dira eta, zehatz-mehatz, honako hauek:

- Sozietatearen jarduerari buruzko urteko programa, jardueren txostena eta ekitaldi bakoitzeko txostena.
- Ekitaldi bakoitzeko aurrekontuaren proiektua, urteko kontuak osatzea eta emaitzen esleipenari buruzko proposamena.
- Estatutuak aldatzeko proposamenak.

Halaber, Lehendakaritzak proposatuta, gerentzia izendatu behar du.

Kontseilua 14 bider batzartu zen 2012an; horietako hiru ez ohiko bilerak izan ziren. Kontseiluko kideei emandako dieten zenbatekoa 16.008,00 €koa izan da.

Kontseiluaren osaera 2012ko abenduaren 31n

Alkate-Lehendakaria

Idoia Garmendia Telleria anderea (PP)

Kontseilariak

Idoia Garmendia Tellería anderea (PP) *Zinegotzia*

Leticia Comerón Refojos anderea (PP) *Zinegotzia*

Tomás Mayo Lamelas jauna (PP)

Benedicto Barrios Casado jauna (PP)

Blanca Guinea Astoviza anderea (EAJ-PNV) *Zinegotzia*

Valeriano Tena Mateos jauna (EAJ-PNV)

José Antonio Zabala Larrínaga jauna (EAJ-PNV)

José Manuel Bully Espinosa jauna (PSE-EE)

M^a Ángeles Gutiérrez Ondarza anderea (PSE-EE) *Zinegotzia*

Peio López de Munain López de Luzuriaga jauna (PSE-EE) *Zinegotzia*

Antxon Belakortu Preciado jauna (BILDU GASTEIZ) *Zinegotzia*

Ane Aristi Alberdi anderea (BILDU GASTEIZ) *Zinegotzia*

David Pina Jorge jauna (BILDU GASTEIZ) *Zinegotzia*

Idazkaria

Francisco Goikoetxea Piedrola jauna

Kontu hartzailea

Alfredo Barrio Gil jauna

Gerentzia

- Kontseiluari eta bere lehendakariari laguntzea, jorratuko diren gaii buruz informatzea eta aholkatzea eta haien erabakiak, ebazpenak eta haiek eskuordetutako zereginak gauzatzea.
- Sozietatearen organigrama, lanpostuen zerrenda, funtzioak, lan baldintzak eta hitzarmen kolektiboa, aurrekontuak, balantzeak, inbentarioak, jarduteko programak eta jardueri buruzko txostenak proposatzea.
- Sozietatearen jarduerari lotutako guztiak zuzentzea eta ikuskatzea.

Giza Baliabideak eta Idazkaritza

- Giza Baliabideen prozesuak behar den bezala eta modu integratuan kudeatzea: langile berrien sarrera, lan harremanak, laneko segurtasuna eta osasuna, langileen trebakuntza.
- Lizitazioak eta kontratuak, ondarea eta enpresaren aseguruak kudeatzea, istripuak izapidetzeko.
- Barneko eta kanpoko arreta juridikoa eskaintzea.

Ekoi-zerbitzuak, Ustiapen eta Mantentze Arloa

- Kalitatezko edateko ura ekoiztea eta ur zikinak iragaztea, indarreko araudian ezarritakoaren arabera.
- Ur hartuneetan proiektuak eta obrak egitea, mantentzea eta kudeatzea.
- Arakako EUAko instalazio guztiak kudeatzea nahiz mantentzea, eta Krispiñako UZAko instalazio guztien ustiapena ikuskatzea.
- Ura edateko ur bihurtzeari eta arazteari buruzko proiektuak eta azterlanak idaztea.

Tratamendua eta Kalitatea

- Kontsumoko urak edateko ur bihurtzeko behar den tratamendu mota eta haren baldintzak ezartzea eta kalitatearen arloko indarreko araudiak betetzen diren egiaztatzea.
- Uraren kalitatea jatorrian, tratamenduan eta sarean nahiz laginketa puntuetan kontrolatzea.
- Ur zikinak arazteko tratamendu prozesuak kontrolatzea eta udal hodi biltzaileetan egindako isurketen jarraipena egitea.
- Arazteko prozesuei lotutako azterlanak prestatzea.

Ustiapen eta banaketa

- Presen, banaketa sarearen eta lehen mailako hodien lanak egitea, mantentzea, haiei buruzko proiektuak zein azterlanak egitea eta obrak zuzentzea.
- Banaketarako barruko instalazioak ikuskatzea eta kontrolatzea.
- Kontagailuak eta teleirakurketako sistemak berritzea eta instalatzea.
- Futura Plana eta AMVISAk egindako Garapenerako Lankidetzako jarduerak koordinatzea.

Saneamendua

- Vitoria-Gasteizko estolderiako sistema orokorra eta udalerrirako Batzar Administratiboetako sistema espezifikoak kudeatzea, mantentzea, hari buruzko proiektuak eta azterlanak egitea, obrak zuzentzea eta ikuskatzea.
- Estolderiako sarearen funtzionamendu hidraulikoa eta arazketan daukan eragina aztertzea eta kudeatzea.
- Lizentzien tramitazioa, herritarrentzako arreta eta saneamenduaren arloko indarreko araudiaren betetze mailaren gaineko zaintza eta ikuskapena kudeatzea.

Administrazioa eta Ekonomia

- Zerbitzuaren kontratazioa (kontratuen altak eta bajak) eta jarduera komertziala (irakurketa, fakturazioa, kontsumoen kobrantza, zordunen eta iruzurren kontrola, estatistikak prestatzea) kudeatzea.
- Bezeroarentzako arreta eta abonatuakiko komunikazioa kudeatzea.
- Sozietatearen finantza kudeaketa eta barneko kontrol ekonomikoa egitea: aurrekontuak, tarifak, kontabilitatea, urteko kontuak, auditoriak, zergak, etab. prestatu eta koordinatzea.
- Gainerako zeregin administratiboak egitea: harremanak, erregistroak, dokumentazioaren artxiboa, etab.

Zerbitzuaren lurraldea eta biztanleria

AMVISAk Arabako Lurralde Historikoaren lau udalerritan eskaintzen du zerbitzua: **Arratzu-Ubarrundia, Zigoitia, Legutio eta Vitoria-Gasteiz** (hiriarekin batera, herriak eta udalerriko landa gunek dauzka).

87 herriri ur hornidura ematen zaie
(40 altan eta 47 bajaran)

52 herriri saneamendu zerbitzua ematen zaie

245.964 biztanleri ur zerbitzua ematen zaie
(4.565 altan eta 241.399 bajaran)

241.668 biztanleri saneamendu zerbitzua eskaintzen zaie

01.4 Zerbitzuari buruzko datu nagusiak, 2012

Zerbitzua jasotzen duten herritarrak	
Hornidura* 245.964 bizt.	
Saneamendua: 241.668 bizt	
Langile kopurua	66 lagun
Kontratu kopurua (urteko azken fakturazioa)	119.815 kontratu
Fakturaturako ura	%84,20
Etxeko batez besteko fakturazioa	1,46 €/m³
Etxeko kontsumoa biztanle eta egun bakoitzeko	
Vitoria-Gasteizko udalerrria: 111,1 litro	
Hirigunea: 110,0 litro	
Negoio zifraren zenbateko garbia	23.340.976,43 €
Ekitaldiaren emaitza	7.404.871,47 €
Inbertsioak (azpiegiturak, hobekuntzak, I+G+B)	8.736.069,35 €

Hartutako ura	21,734 Hm3 urteko; 59.384 m3 eguneko
Sarean sartutako edateko ura	19,748 Hm3 urteko
Zuzkidura orokorra (kontsumoa biztanle eta egun bakoitzeko)	222,3 litro
Erregistratu gabeko ura	%15,73
Banaketa sareko errendimendua	%89,38
Banaketa sarearen luzera	726,2 km
Abonatuak hartune bakoitzeko	11,77
(Zuntz zementuzko) hodian berritze tasa	3,05%
Saneamenduko sarearen luzera	830,1 km
Tratatutako ur zikinak	32,880 Hm3 urteko; 89.836 m3 eguneko

GIZA TALDEA

02

Lan egindako orduak

Urtean, guztira, 104.987 ordu lan egin dira, 111.730 lanordu teoriko guztizkoaren gainean (1.599,5 ordu langile bakoitzeko).

- 556 ordu erabili dira Enpresa Batzordearen bidez langileak ordezkatzeko (hilabeteko 30 ordu gehienez, ordezkari bakoitzeko, eta bost ordu gehiago batzordeburuarentzat) eta beste bi, Prebentzio ordezkariak erabilitakoak (hilabeteko ordu, gehienez, ordezkari bakoitzeko). 10 ordu/hilero horietako bakoitzagatik).
- Urtean aldi baterako 168 kontratu sinatu dira lan-poltsan dauden langileekin; guztira, 16 pertsona daude bertan. Aldi baterako langileek 1.208 lanaldi egin dituzte, guztira.
- Aparteko 293,2 lanordu egin dira, atsedendiek konpentsatuta.
- Larrialdietako zerbitzuak 119 irteera egin ditu, lanalditik kanpoko 148,3 ordu barne.

Laneko absentismoaren indizeak izandako bilakaera (%) eta absentismo erlatiboaren indizea

- Lizentziak, baimenak
- ABE eta gaixotasuna
- Norberaren gaiak
- Greba

AMVISAKo langileak

AMVIISAKo langileen sailkapena 2012an		
Irizpidea	Gizonak	Emakumeak
Kategoria profesionalen arabera	54	24
Goi mailako tituludunak	8	3
Erdi mailako tituludunak	4	2
Administrariak	6	12
Teknikariak	19	7
Operadoreak eta espezialistak	10	0
Ofizialak edo peoiak	7	0
Enpresaren jarduera-arloen arabera	54	24
Giza Baliabideak eta Idazkaritza	0	4
Ekoi zen, Ustiapen eta Mantentze Arloa	25	1
Tratamendua eta Kalitatea	3	7
Ustiapena eta Banaketa	12	4
Saneamendua	4	1
Administrazioa eta Ekonomia	8	6
Gerentzia	2	1
Kontratu motaren arabera*	68	25
Lanaldi osoko kontratu mugagabea	54	24
Behin-behinekoa, lanaldi osoko aldi baterako obra kontratua	1	0
Behin-behinekoa, ordezte kontratua	13	1
Beste batzuk		
Zuzendaritza lanpostuetako langileak	5	2
Praktiketan hartutako langileak	0	3

*Aldi baterako langileak barne

Desgaitasuna duten langileak:

2010eko ekainaren 10ean emandako Ebazpenaren arabera, INEMek AMVISari hiru urteko epea eman dio lanpostuen %2a langile desgaituei erreserbatzeko beharkizunaz salbuetsita egoteko, apirilaren 8ko 364/2005 Errege Dekretua betetzeko xedez (BOE: 2005-04-20a). Izan ere, urtero Montero & Martín & Salazar Sozietate Zibileko langile autonomo desgaituekin merkataritza-kontratua sinatzen du, kontagailuen irakurketa egin dezaten.

2012an AMVISAKo langileen zerrenda 66 lanpostu finkoz eta 12 erretiro partzialez osatuta zegoen eta organigraman, guztira, 78 lanpostu daude.

Prestakuntza eta garapen profesionala

AMVISAREN iritziak, prestakuntza tresna estrategikoa da eta esperientziak trukatzeko balio du. Gainera, sektoreko enpresen arteko koordinazioa eta komunikazioa ere erakundean ikasteko iturri garrantzitsuak direla uste da. Hori dela eta, langileek mota askotako bilera teoriko edo praktikoetan eta laneko foroetan parte hartzea sustatu da, esate baterako, AMVISAK Ur Hornidurako eta Saneamenduko Espainiako Elkartearen (AEAS) batzorde edo bileretan parte hartzen du.

Prestakuntzaren beste alde garrantzitsu bat euskararen ikaskuntza da, Plan Estrategikoan adierazitako *El euskera amable/ Euskaraz atseginez Euskara Sustatzeko Planaren* bidez.

2012an:

- Prestakuntzarako 3.512,56 ordu erabili dira, guztira: 51,50 ordu langile bakoitzeko. Hori langile bakoitzeko prestakuntzaren %3,22 da.
- Prestakuntza eta koordinaziorako gastu osoa 27.991,87 €-koa izan da (joan-etorrietarako gastuak barne). Dena den, zenbateko horri 39.833,39 € gehiago batu behar zaizkio, horixe baita Euskararen Prestakuntza Planean berariaz erabili den zenbatekoa. Prestakuntza ekintzak garatzeko Hirukoaren eta Hobetuzen diru-laguntzetatik 15.577,257 € erabili dira (azken kasu horretan 2012-2013 ikasturtean egin beharreko prestakuntzarako).
- AEASEko 12 bileretan parte hartu dugu: bilera horietara sozietateko zazpi kide joan dira.
- 25 langilek, hau da, plantilla osoko % 38ak, euskara ikasi dute 2012an.

Laneko segurtasun eta osasuna

AMVISAKo Segurtasun eta Osasun Batzordea enpresako ordezkariak, langileen ordezkariak (Enpresa Batzordeko kideek elkarren artean haututakoak) eta Gasteizko Udalaren Prebentzioko Zerbitzu Mankomunatuak ordezkariak osatuta dago. Prebentzio eta segurtasun neurriak betearazteaz arduratzen da, arlo horretako prestakuntza barne hartuta. Horretarako, lau bilera arrunt egin dira 2012an.

Laneko segurtasun eta osasuneko prestakuntza lanorduen barnean egiten saiatzen da beti edo, bestela, beste ordu batzuetan, atsedenealdien bidez konpentsatuta.

2012an zehar, 2.344,55 € inbertitu dira langileak babesteko materialetan.

AMVISAREN Hitzarmen Kolektiboaren 58.9 artikuluan ezarritako konpromisoaren arabera, 71 pertsonak borondatezko azterketa medikoa egin dute eta haien lanpostuko jarduera gauzatzeko gaitzat jo dituzte. Ez da egon baja medikoa eragin duen laneko istripurik.

Giza taldearen kudeaketari dagozkion alderdiak

AMVISArentzat ezinbestekoa da konpromisoa, prestakuntza eta motibazioa dauzkan giza taldea edukitzea. Haren bidez, biztanleei kalitatea, berrikuntza eta eraginkortasuna ardatz dituen zerbitzua eskainiko die.

AMVISAko giza taldea bere egitura egokitzen eta modernizatzen ari da, lehenetsunak ezarrita eta ahaleginak bilduta, krisia ahalik eta baldintza onenetan gainditzeko. Horretarako, prestakuntza, komunikazioa eta gaitasunen garapena bultzatzen dira, hazkunde iraunkorra edukitzeko eta Uraren Zerbitzu Integrala kudeatzeko helburuak betetzeko xedez. Giza Baliabideen Arloak enpresan partaidetza eta sormena garatzeko asmoa dauka, prozesu formal bati jarraiki, funtsean Plan Estrategikoa eta *El Euskera amable/ Euskaraz Atseginez* Euskara Sustatzeko Plana garatuta.

Plantillari eta langileen kudeaketari dagokienez, 2012an honako jarduera hauek nabarmendu behar dira:

- Erakundearen barnean lau pertsona gorago dauden kategorietako lanpostuetara sartu dira, oposizio-lehiaketa bidez: administrari bat, Saneamendu Arloko bi arduradun eta Banaketa Arloko ikuskatzaile bat.
- Lan merkatutik sei langile berri sartu dira, kontratu finkoen bidez: Giza Baliabideak eta Idazkaritza Saileko administrari laguntzaile bat, Ekoizpeneko ofizial bat, Saneamenduko Sailburu bat, Saneamendu Sailburuorde bat, Zordunen Saileko ikuskatzaile bat eta Obra eta Kontrata Saileko arduradun bat (lanpostu horietako hiru erretiro partzialengatik edo osoengatik sortu dira).
- Praktiketako hiru pertsona hartu dira: Herri Lanetako Ingeniari Tekniko bat gure bulegoetan, eta bi pertsona gehiago, elikadura kalitate eta segurtasunari buruzko masterretik etorritakoak.
- Hitzarmen kolektiboaren egoerari dagokionez, lan arloko legedi berriaren bidez (otsailaren 12an indarrean sartu zen 3/2012 Errege Lege Dekretua eta uztailaren 8an indarrean sartu zen 3/2012 Legea), lan harremanak Langileen Estatutuaren 86.3 artikuluko arauaren pean daude orain. Horregatik, hainbat topaketa egin dira enpresaren hitzarmena negoziatzeko, baina irizpideak ez dira bateratu. Hasieran, Batzordeak proposamen bat aurkeztu zuen, eta enpresak hitzarmenerako plataforma proposatu. Hala ere, atalez atal negoziatzen joan den arren, ez da sinatzeko adostasuna lortu.
- Urtean lan egiten jarraitu da, ahal den neurrian, lanari lotutako arriskuak desagerrarazteko eta saihestu ezin diren arriskuen efektua gutxitzeko. Horretarako, langileei haien lanpostuei atxikitako arriskuen berri ematen zaie, eta laneko ohitura seguruetan trebatzeko prestakuntza eskaini, prebenitzeko asmoz.

URAREN ZIKLO OSOIA

03

03.1 Edateko ura hartu eta ekoiztea

2012an urak hartzen diren ohiko guneetatik ateratako ur guztiaren bolumena **21.575.972 m³**koa izan zen; horietatik 19.748.031 m³ edateko ur bihurtu genituen, eta banaketa sarean sartu

AMVISAK lau gunetatik hartzen ditu urak, eta hurrengo lekuetan daude: Zadorra Sistemaren urtegiak (Ulibarri-Ganboa), Zadorra ibaia bera (Durana parean), Gorbeia urtegiak eta Albinako urtegia. Ura banatzeko emakidaren gehieneko bolumena 51.088.320 m³-koa da.

Arakako Edateko Uren Araztegia (EUA) banatutako edateko uraren %96 ekoizten da. Gainerako bolumena Gorbeia iturburuetatik dator. Horrek EUA propioa du, harearen bidez iragazteko sistemaz hornitua.

Ura hartzeko guneen eta 2012an hartutako uraren eskema

Gorbeia urtegiak

Titulartasuna: AMVISA
Uraren jatorria: inguruko iturburuak
Edukiera: 1 Hm³
AMVISARI emandakoa: 50

938.853 m³

2.565 m³ eguneko
hilean gehienez 98.433 m³
(urtarrila)

Albinako urtegia

Titulartasuna: Vitoria-Gasteizko Udala
Uraren jatorria: Albina ibaia
Edukiera: 5,3 Hm³
AMVISARI emandakoa: 200 l/s

158.437 m³

Ulibarriko urtegia

Titulartasuna: Iberdrola
Uraren jatorria: Zadorra eta Barrundia ibaiak eta Argazubi, Añua eta Alegria ibaien emariaren zati bat, Alegria ibaiaren Kanalaren bidez heldutakoa.

Edukiera: 80 Hm³

AMVISARI emandakoa: 1.000-1.250 l/s (Alegria Kanalaren urtegiko ekarpenaren arabera, 2012an 13.136.295 m³koa izandakoa). Gainera, Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoa ere urez hornitzen du.

19.676.703 m³

53.761 m³ eguneko
hilean gehienez 2.323.123 m³
(uztaila)

Duranako ur bilketa

Titulartasuna: Vitoria-Gasteizko Udala
Uraren jatorria: Zadorra ibaia
AMVISARI emandakoa: 50 l/s

960.416 m³
2.624 m³ eguneko
hilean gehienez
99.404 m³

AMVISAK hartutako ur osoaren bilakaera (m3)

Zadorra Sistemaren urtegiatiko bermearen kurba eta bolumenak

Hartutako uraren %90 baino gehiago Zadorra Sistematik dator

Ullibarri Ganboako urtegiaren batez besteko kota 544,24 m-koa izan da 2012an, hartutako 112,87 hm³ko batez besteko bolumenerako.

2012ko eurien bilakaera

Iturria: Eusko Jaurlaritzako lau estazio meteorologikotako erregistroen batez bestekoa: Gasteiz, Abetxuko, Arkaute eta Zaldiaran.

Ekoiztutako ura

2012. urteko ustiapen datuak	
Ekoizpen nominaleko gaitasuna:	Ekoiztutako edateko uraren bolumen osoa 19.033.074 m3
Urteko 37.843.200 m3	Hileko ekoizpenaren gehieneko bolumena (uztaila) 1.993.241 m3
Lanean emandako urteak: 29	Hileko ekoizpenaren gutxieneko bolumena (azaroa) 1.386.832 m3
Edateko ur biltegiak guztira: 3	Erreaktiboen kontsumoa
Biltegiatako edukiera osoa: 90.000 m ³	Kloro gasa 53.079 kg
EUAtik kanpo sareari lotutako Gardelegiko	Sodio hidroxidoa 126.037 l
amaierako biltegiaren edukiera: 13.000 m ³	Flokulantea (PAX-XL7A) 301.180 kg
	Azido hexafluorosilizikoa 14.522 kg
	Ikatz aktibatua 98.916 l
	Garbiketak 397
	Ur kontsumoa (purgatzeak eta garbiketak) 87.800 m3
	Energia kontsumoa 925.787 KWh

Arakako EUAn 2012an egin den ekintza nagusia 30.000 m³ko 3 zenbakiko biltegia amaitu eta abiaraztea izan da; biltegi horrek horniketaren bermea areagotuko du, lantegian edozer gertatuta ere.

2013rako aurreikusitako jarduerak


- Arakako EUAko 1 eta 2 zenbakietako biltegiak eta Alegriaren Kanalaren lauzak birgaitzea, Ullibarri Ganboako urtegiko ponpaketa atxikitzeke balbulak ordeztzea eta Gorbeiaiko EUAko estalkian hobekuntzak gauzatzea.
- Albinako urtegitik datorren ur gordina hartzeko ustiapena gehitzea, presa eta Arakako EUA lotzen dituen hodi berriaren obra amaitu ondoren.

EUAn ekoiztutako eta banaketa sarera eramandako uraren bilakaera

2012an Arakako EUAtik banaketa sarera emandako edateko uraren bolumena 19.033.074 m³koa izan da, horrek eguneko 52.003 m³ko batez bestekoa dakarrela.

Beraz, aurreko urtearekin alderatuta %5,6ko murrizketa egon da.

2012an hartu eta ekoiztu den uraren balantze orokorra



*Ur bilketa honek iragazteko eta edateko ura sortzeko berezko estazioa dauka

03.2 Edateko uraren kalitatea

AMVISAk Vitoria-Gasteizko hiriarri eta bere udalerriko 88 erakunde txikiagori (horietako 38 altan eta 50 bajaran) banatutako edateko uraren gehieneko kalitatea bermatzen du, Albinak EUako laborategietan egindako kontrolei esker.

EUako tratamenduen gainbegiratzea eta egokitzapena

AMVISako Tratamendu eta Kalitateak kontrolak egiten ditu egunero Arakako EUAn eta Gorbeiaiko EUAn, Ekoizpen eta Mantentzera doazen tratamendu kontsignetan beharrezkoak diren aldaketak zehazteko helburuarekin, lortutako emaitzen arabera.

Arakako EUAn egindako kalitate kontrolen zerrendak barne hartu du:

- Uraren eguneko kontrola araztegiaren sarreran, tratamenduaren fase ezberdinetan eta tratatutako uretan, guztira aztertutako 778 laginentzat.
- Kontrol bereziak, urteko sasoiaren arabera, mikroalgen (43 azterketa guztira, gune ezberdinetan eginak), protozoo patogenoen (8 azterketa guztira, gune ezberdinetan eginak) presentzia eta Burdin eta Manganeso kontzentrazioa (158 azterketa gehiago) aztertzeko.
- Profilak urtegi mailan zunda multiparametrikoarekin Ulibarriko eta Albinako urtegietan, azkeneko hau Iberdrolaren lankidetzarekin. Ulibarriren kasuan EUAn jasotako uraren kalitate aldaketen aurretzeko ezagutza hobea ahalbidetu dute, eta Albinan hartune ezberdinen mailara dagoen kalitatearen bilakaera, 2013an martxan jartzen denerako urtegiaren ustiapen hobea ahalbidetzeko.

Gorbeiaiko EUAn horni-leku horretako Kontrol eta Zaintza Unitate bezala egindako azterketen emaitzak ebaluatzen dira. Bi urtegietan jarraian instalatutako neurgailuak ikuskatu, kalibratu eta mantendu egiten dira.

Ulibarri-Olleros eta Mandojanako EUako instalazioetako mantentze-lanak eta Vitoria-Gasteizko sarearen birkloratzeak egiteko kontratatutako enpresen jarraipena egiten da ere, beharrezkoak diren kalitate kontsignak emanez. Unean-unean ikuskaritza bisitaldiak egiten dira.

Ura arazteko prozesura ekarritako ur bolumenak ur kalitatearen arabera

A1 ur mota	32.512 m ³
A2 ur mota	20.282.720 m ³
A3 edo txarragoa den ur mota	--

Uraren gogortasuna

Batez besteko tasa (13,3 eta 17 HF artean)

Hornikuntzaren kontrol eta kudeaketa programa

AMVISAK kontrol programa hau burutzen du, Vitoria-Gasteizko Udalaren osasun erakundeek eta DEMSACek onartu ondoren, hornikuntzaren lau eremuetan Kontrol eta Zaintza Unitateari dagozkion (KZU) betebeharren barruan.

EAEko Kontsumorako Uren Informazio Sistema (EKUIS) programak egindako azterketen emaitzak astero jakinarazten dira.

Hornikuntza-gune ezberdinen kalifikazioa. 2012. urtea		
Hornikuntza gunea	Aztertutako laginak eta parametroak	Kalifikazioa
Vitoria-Gasteiz ¹	1.131 lagin (%99,8 egokiak) 13.202 parametro	EGOKIA
Gorbeia ²	137 lagin (%94,9 egokiak) 1.912 parametro	ONARGARRIA
Mandojana ³	22 lagin (%91,7 egokiak) 1946 parametro	ONARGARRIA
Ulibarri-Ollero ⁴	10 lagin (%100 egokiak) 92 parametro	EGOKIA

¹Vitoria-Gasteiz Hornikuntza Gunean egindako kontrol laginak:

- Ulibarri, Durana eta Albinako kaptazioak etorkizuneko martxan-jartzeentzat (18 lagin, adierazitako osoan sartuta ez daudenak).
- Albina eta Gordelegiko EUAko biltegien irteerak (294 lagin).
- Banaketa sarearen laginketa puntuak, 16 hirian eta 33 Administrazioa Batzarretan (837 lagin).

²Gorbeia Hornikuntza Gunean egindako kontrol laginak:

- Gorbeia iturburuaren kaptazioa (6 lagin, adierazitako osoan sartuta ez daudenak).
- Iragaketa eta ura arazteko eraikinaren irteera (5 lagin).
- Banaketa sarearen laginketa lau puntu (82 lagin).

³Mandojanako Hornikuntza Gunean egindako kontrol laginak:

- Kaptazioa, biltegiaren irteerako ura eta banaketa sarearen laginketa puntuak.

⁴Ulibarri-Olleros Hornikuntza Gunean egindako kontrol laginak:


- Kaptazioa, biltegiaren irteerako ura eta banaketa sarearen laginketa puntuak.

Beste azterketa keta kontrolak

Urtean zehar laborategiko kontrol mota ezberdinak egin dira:

- Horrela eskatu zuten **bezeroei egindako sarearen kalitatearen kontrolak**: 2 kanpoko bezero, guztira 10 laginekin.
- **Erreklamazioen ondorioz egindako azterketak** edo Banaketa Eremuaren laguntzarekin egindakoak: 29 lagin.
- Albinako eta hiriko aukeratutako lau gunetako EUAko andelen irteera uren **dastamen eta usaimeneko ezaugarrien azterketa**, dastatze panel baten bitartez. Honek jatorrian emandako bariazioen edo tratamenduan egindako aldaketen ondorioz uran emandako aldaketak antzematen laguntzen du.
- Ezarritako **kalitatearen kudeaketa sistemaren barruan egindako kalitate kontrolak**: barruko ebaluazioa eta laborategiartekoan parte-hartzea

Barruko auditoria bat egin zen azaroan eta kanpoko beste bat ENACen partetik apirilean; honen ostean egiaztagiria mantendu egin da eta parametro bateko irismena handitu egin da.



Urtean egindako 33 dastatzen panel 100 lagin aztertuta

Edateko uraren kalitate parametroak

Parametro fisiko-kimikoak									
Parametroa	Gehienezko kontzentrazioa*	VITORIA H. G.		GORBEIA H. G.		MANDOJANA H. G.		ULIBARRI OLLEROS H. G.	
		Batezbest ekoa	Azterketa znbk.	Batezbest ekoa	Azterketa znbk.	Batezbest ekoa	Azterketa znbk.	Batezbest ekoa	Azterketa znbk.
Aluminioa ug/l	200	82.5	214	60.1	56	<20	1	<20	1
Amonioa mg/l	0.5	<0.1	1100	<0.1	133	<0.1	20	<0.1	9
Antimonioa ug/l	5	<1	34	<1	13				
Artsenikoa ug/l	10	<1	35	<1	13				
Bario ug/l		12.1	35	9.9	13				
Boroa mg/l	1	<0.1	35	<0.1	13				
Bromodiclorometanoa ug/l		7.2	32	1.4	11				
Bromoformoa ug/l	5	<1	32	<1	11				
Kadmioa ug/l	5	<1	35	<1	13				
Kaltzioa mg/l		51	35	42.1	13				
COT mg/l	Ez-ohizko aldaketarik gabe	1.3	70	0.5	25	0.8	1		
Kloro askea mg/l	1	0.36	1131	0.59	137	0.35	22	0.34	10
Kloroa guztira mg/l	2	0.43	1131	0.64	137	0.41	22	0.40	10
Klorodibromometanoa ug/l		2	32	<1	11				
Kloroformoa ug/l		23.1	32	5.4	11				
Kloruroa mg/l	250	20.8	35	6.2	13				
Kobrea mg/l	2	<0.01	35	<0.01	13				
Kolorea	15	<5	1120	<5	133	<5	20	<5	10
Eroankortasuna uS/cm	2500	296	1125	193	134	584	20	541	10
Kromoa ug/l	50	<5	35	<5	13				
Fluoruroa mg/l	1.5	0.9	1125	<0.1	44				
Fosforoa (P ₂ O ₅) ug/l		<230	35	<230	13				
Burdina ug/l	200	<10	63	31.3	17				
Magnesioa mg/l		4.1	35	<1	13				
Manganesoa ug/l	50	<5	71	<5	18				
Merkurioa ug/l	1	<1	35	<1	13				
Mikrozistinak ug/l	1	0.3	32	<0.3	13				
Nikela ug/l	20	<5	35	<5	13				
Nitratoak mg/l	50	3	35	2	13				
Nitratoak mg/l	0.1 irteera/ 0.5red	<0.02	35	<0.02	13				
Oxidagarritasuna mg/l	5	1.67	34	0.87	13				
pH	6,5 eta 9,5 artean	7.76	1125	7.9	134	7.67	20	7.43	10
Pestizidak guztira ug/l	0.5	<0.5	24	<0.5	12				
Beruna ug/l	25	<10	35	<10	13				
Potasioa mg/l		1.6	35	<1	13				
Selenioa ug/l	10	<2	35	<2	13				

Parametro fisiko-kimikoak									
Parametroa	Gehienezko kontzentrazioa*	VITORIA H. G.		GORBEIA H. G.		MANDOJANA H. G.		ULIBARRI OLLEROS H. G.	
		Batezbest ekoa	Azterketa znbk.	Batezbest ekoa	Azterketa znbk.	Batezbest ekoa	Azterketa znbk.	Batezbest ekoa	Azterketa znbk.
Sodioa mg/l	200	10.7	35	3.4	13				
Sulfatoa mg/l	250	21.3	35	7.9	13				
Tetrakloretenoa ug/l	tri + tetraclor <10	<1	32	<1	11				
THMak guztira ug/l	100	32.3	32	6.4	11				
Trikloeteno ug/l	tri + tetraclor <10	<1	32	<1	11				
Turbidez NTU	1 irteera, 5 red	0.5	1130	0.7	137	0.3	22	0.49	10
Zink ug/l		<10	35	23.2	13				

*RD 140/03-aren arabera

Parametro mikrobiologikoak									
Parametroa	Gehienezko kontzentrazioa *	VITORIA H. G.		GORBEIA H. G.		MANDOJANA H. G.		ULIBARRI OLLEROS H. G.	
		Batezbest ekoa	Azterketa znbk.	Batezbeste koa	Azterketa znbk.	Batezbeste koa	Azterketa znbk.	Batezbeste koa	Azterketa znbk.
36°C Aerobioen Zenbaketa ufc/ml	EUA irteera<100; Ez-ohizko aldaketarik gabeko sarea	1	197	4	52	0	1	0	1
22°C Aerobioen Zenbaketa ufc/ml		7	32	1	12				
Clostridium perfringens zenbaketa ufc/100 ml	0	0	213	0	64	0	1	0	1
Koliforme guztien zenbaketa NMP/100ml	0	0	1119	0	135	0	22	0	10
Ecoli zenbaketa NMP/100ml	0	0	1122	0	135	0	22	0	10
Enterococo zenbaketa NMP/100ml	0	0	33	0	12				
Pseudomona aeruginosa zenbaketa ufc/100ml		0	35	0	13				

*RD 140/03-aren arabera

2012an egindako kalitate kontrolen balantze orokorra	
Kalitate kontrolaren mota	Aztertutako laginak eta parametroak
Barrukoa: kontrolak Hornikuntza Guneetan eta EUAetan, bezeroei eta beste batzuei egindakoak	2.379 lagin 22.235 parametro
Kanpoko laborategian: pestiziden zehaztapena, ongarri lurrunkorrek eta ziklo askotariko hidrokarbuo aromatikoak.	36 lagin 1.800 parametro
Ezarrirako Kalitate Sistemarentzat: laborategien artekoak, gehitutako laginak, laginen erreplikak, analisi bankuak, ur, ingurumen eta gainazaleko erreaktiboen kontrolak.	1.584 lagin 2.077 parametro

Kalitate alorreko beste jarduera batzuk

AMVISAK zebra muskuiluari buruzko erakunde arteko mahaian parte hartzen du. Bertan, Ulibarriko Urtegian abenduan, ale helduak agertu zirenez jabetu da.

Ikerketa eta garapenean
"Mikrozistinarako toxikotasun test azkarraren aukeraketa eta egokitzea. Aholkularitza alerta mailetan", Madrileko Complutense Unibertsitatearen laguntzaz.

Bukatzeko, aipagarria da Saileko langile guztiek ISO17025 arauaren inguruko trebakuntza ikastaroa egin dutela, laborategiak egiaztagarria izanik.

Inbertsioei dagokienez, hauek burutu dira:

- Tresneriaren berritzea: materialaren prestakuntzarako eta mikrobiologiaren erreaktiboentzako autoklabea, Karbono Organiko Totala (KOG) eta laginen bilketarako ibilgailua.
- Ariniz herriko birkloratzea ezartzea, desjabetzeko lursailean zegoen aurrekoaren orde.
- Kloroaren etengabeko neurketa egiteko sistema instalatzea sarean dauden zenbait birkloratzeetan, sartutako emariaren eta dagoen neurriaren araberako dosifikazioa agintzeko aukeraz. Balio altuak edo baxuak eta instalazio akatsez ohartarazteko sms mezuak ere barne ditu.

2013rako aurreikusitako jarduerak

Proiektuan daude: Ulibarri-Olleroseko EUaren birmoldatzea, Jundizen birkloratzeko instalazio berria eta Durana birmoldatzea.

- Banaketa Eremu bakoitzean Kontrol Gune Erabakigarriak behatzea, Osasun teknikoen aginduak jarraituz berregin den kontrol programan dagoen dokumentazioan batutakoak.
- Banaketa Eremu guztien berrizendapena UCV bezala berritzea, Mandojana izan ezik.
- Kontrol analitikoak gehitu Gardelegi-Aretxabaletako 19. Sektorean, Gasteizko Banaketa Eremuan, eta Gorbeiaiko Banaketa Eremuan kontrol bereziak egitea euri oparoko aldietan.
- Ulibarriko Urtegitik ponpatzen den uretan zebra-muskuiluaren larben kontrolak egitea planteatu, kaptazio horren iturburuan birkloratze baten instalazioa eta funtzionamendua erabakitzeko.
- Azaroan ENACek auditoria bat egitea.
- Madrileko Complutense Unibertsitatearen kontratuarekin jarraitu aholkularitza teknikorako, AMVISAREN kaptazioetan mikroalga toxikoak eta toxina eratorriak agertzekotan, alerta mailak, antzemate bideak eta desagerrarazteko moduak.
- Inbertsio berriei ekitea: Manganesoaren etengabeko aztertzailea, 2012an egindako birkloratzeko instalazioetan Internet bidezko datuen transmisiorako sistema, eta Jundizeko birkloratze berriaren ekipamendua.

Edateko uraren banaketa **03.3**

Ustiapen datuak (2012)	
Sarearen urteko hazkundera*	17.682,96 m
Galdaketa moldakorrezko fibrozementuzko ur hodien berriztatzea*	4.825,49 km
AMVISAK sustatutako lanak	4.230,92 km
Udalak sustatutako lanak, AMVISAK ordainduak	293,32 km
Fibrozementu eta polietilenoazko ur hodien berriztatzea	891,97 km
Korrelazio akustikoaren bidez kontrolatutako sarearen luzera	86,65 km
Antzemandako ihesak	53
Kontagailu berrien instalazioa	2.496
Kontagailuen berriztatzea	6.946
Ur-kontsumoaren instalazioen berriztatzea	
Bizigarritasunerako etxebizitzak	2.479
Pabiloiak	6

Albinatik ekartze berriaren hodia barne. Polietileno sareak utzi dira sektore berrien sareen funtzionamenduaren ondorioz.

Sistemaren ur hodien luzera, material eta diametroaren arabera (Ømm)

- Fibrozementua
 - Galdaketa moldakorra
 - Burdinurto grisa
 - Polietilenoa
 - Beste batzuk
-
- Ø900-1.200
 - Ø500-800
 - Ø250-400
 - Ø100-200
 - Ø100 baino gutxiago

Banaketa sarearen luzera: 726,16 km
Ur edangarriaren ponpatze araztegiak: 15
Hartuneak: 10.177
Instalatutako aurrebilagailuak: 760
Kontagailuen parkea: 123.389 (3.750 teleirakurketa sistemarekin)
Ureztatze ahoak: 2.098
Ur-hartuneak: 969
Balbulak: 3.750
Isurbideak: 1.903

AMVISAREN sarea berritzeko politikaren barruan, fibrozementuzko hodi guztiak ordeztzen ibiltzea aurreikusita dago. Gaur egun, banaketa sareko %22 horrelako materialez eginda dago.

Banandutako ura

Banaketa sarean 2012an sartutako ur bolumena 2011koa baino %6 txikiagoa izan da

Igorritako eta erregistratu gabeko ur bolumena 3.107.051 m³koa da, eta sarearen errendimendua, berriz, %89 baino handiagoa da oraindik.

2013rako aurreikusitako jarduerak

- Abetxukoko by-passa amaitzea eta sarea Arakako EUAtik N-240 errepideko gurutzeraino zati bat berritzeko lana amaitzea.
- Zadorra ibaiaren gaineko Abetxukoko ubide-pasabidearen proiektua idaztea eta gauzatzea, bigarren bao bat ipinita, ibaiaren funtzionamendu hidraulikoa hobetzeko eta udalerriko horniduraren egitura 500 urtean behin izan litezkeen uholdeetatik babesteko asmoz.
- Langraitz eta Subillako zundaketen ekipamendua. Langraitzeko saihasbidean 3.500 metroko luzera eta Ø 900 nahiz 700 mm-ko hoditeria dauzkan ponpaketa berria. Lehorterik badago, horniketarako bermea handitzea ekarriko dute.
- Banaketa sarea berritzea Sansomendi auzoan (I., II. eta III. fasea) eta Gamarrako Atea nahiz Forondako Atea kaleetan (azken honetan zulorik gabeko teknologiaren bitartez).
- Gardelegi-Aretxabaleta 19 Sektorerako hornidura sistema abian jartzea.
- Albina, Gorbeia I eta Gorbeia II presetako Ustiapen Arauak berrikustea.

Banaketa sarera igorritako uraren bilakaera (m³)

2012. urtean egindako jarduera nagusiak:

- Ustiapen eta Banatze Sailaren jardueren barnean 1.149 lan-agindu atenditu dira: Horietako 588 banaketa sistema mantentzeko lanei dagozkie, 165 matxuren konponketari eta 396 Saileko zerbitzu propioei.
- Albinako Urtegitik ura ekartzeko hodia amaitzea, Ø800 mm-ko galdaketa moldakorreko 4.500 metroko hoditeriaren bidez.
- Asistentzia teknikoa URA+, Uraren Euskal Agentziak Abetxukoko by-passa Zadorra ibaiaren azpitik pasatzeko, Ø900 mm-ko galdaketa moldakorreko hoditeriaren bidez.
- Asistentzia teknikoa, Gardelegi-Aretxabaletako 19. Sektorea hornitzeko sistema berriaren obrak gauzatzeko. Hurrengo hauek barne hartzen ditu: orduko 180 m³ko ponpaketa estazioa; 2.000 m³ko gordailua eta Ø300 mm-ko bulkada eta banaketa nagusia.
- Sarearen berriztatze partzialari buruzko proiektua idaztea, Arakako EUAtik N-240 errepideko gurutzeraino Ø500 mm-ko galdaketa moldakorreko hoditeriaren bidez. Gainera, Gasteizen sareak berritzeko hainbat proiektu idaztea.
- Teleirakurgailuaren sistema 3.600 bezero gehiagorengana zabaltzea Mariturri eta Txagorritxu auzoetan.
- Sarea mantentzeko eta erabiltzeko lan aginduak eta kontagailuak instalatu eta berriztatzeko lanak kudeatzeko sistema berria ezartzea, SAP kudeaketarako tresna informatiko berriaren bidez.

Banaketaren adierazle nagusiak

Zuzkidura orokorra

(litroak/biztanleko/eguneko)

Banatutako uraren eta hornitutako biztanleriaren arteko zatidura (2012ko urtarrilaren 1 eta 2013ko urtarrilaren 1 arteko batez bestekoa), 366 egunetarako.

Udalerriko kontsumoaren egituraren araberrako balioa, ahal izanez gero, ahalik eta txikiena izatea hobea.

Erregistratu gabeko ura (sarean sartutako guztizkoaren gainean)

Baimendutako baina neurtu gabeko kontsumitzeko ur bolumenaren eta galeren kalkulua barne hartzen ditu.

Balio hoberena %20 baino gutxiagokoa izatea da, baina hobea da gero eta txikiagoa izatea.

Galerak (sarean sartutako guztirakoaren gainean)

Benetako eta ageriko galerei dagokie: Sareko ihesak, kontagailuen azpikontaketa eta kontsumo klandestinoak.

Balio hoberena %15 baino gutxiagokoa izatea da, baina hobea da gero eta txikiagoa izatea.

Banaketa sareko errendimendua

Baimendutako ur bolumenaren (erregistratua eta erregistratu gabekoa) eta sarean sartutako bolumen osoaren arteko erlazioa ehunekotan.

Balio hoberena %85 baino handiagoa izatea da, hobea da gero eta gehiago izatea.

Hodiak berritzea

Urtean berritutako hodiak sareko fibrozementuzko hodiak guztizkoaren gainean, ehunekoetan.

Balio egokia %4,5 baino gehiago izatea da, Vitoria-Gasteizen 20 urtetan fibrozementuzko hodiak guztiz berritzeko.

Baliabidearen agortze tasa

Banaketa sarean sartutako ur bolumenaren eta baliabide honetatik eman daitekeen bolumen handiena, ehunekotan.

Balio hoberena %50 baino gutxiagokoa izatea da, baina hobea da gero eta txikiagoa izatea.

%38,6

Ihesen kontrol aktiboa

Aurten ikuskatutako hodiak sistemako hodiak guztirakoaren gainean, ehunekoetan.

Balio hoberena sarearen tamainaren arabera (400 km baino gehiago, ikuskatutako puntu kritikoaren %100).

%100

Ihesen atalase minimoa

(litroak/hartuneko/eguneko)

Sistemaren benetako galerak murrizteko aukerarik ez dago muga tekniko honen azpitik, baita mantentze hoberena eginda ere.

Sarearen tamainaren eta hartunekoaren araberrako balioa.

151,7

Egiturazko ihesen indizea

Sarearen kudeaketari dagokion errendimenduaren adierazle teknikoa, benetan egondako galeren arabera.

Urtean egondako benetako galeren eta ihesen atalase minimoaren arteko zatidura. 1etik gertu dauden balioek sarearen egoera bikaina adierazten digute. 10 arte berriz, egoera onargarria esan nahi du.

1,86

Abonatu kopurua hartune bakoitzeko

Zenbat eta handiagoa hobeto.

Hartuneeen arteko batez besteko distantzia (m)

Zenbat eta handiagoa hobeto.

71,35

03.4 Saneamendua

Estolderia eta kolektoreen sareko luzera: 830,08 km

Sare unitarioa: 526,63 km

Sare berezia: 303,44 km

Ur zikinak ponpatzeko estazioak: 18

Ikuskatzeko hormigoizko ganberak: 1.475

Erregistroko putzuak eta kutxatilak: 26.556

Isurbideak: 16.806

Aktibatutako lohien UZAk: 9

Putzu septikoak: 148

Publikoak: 68

Pribatuak: 80

AMVISAk 2009an bereganatu zuen saneamenduko sarea kudeatzeko eskumena

2012. urtean egindako jarduera nagusiak:

- Brasil eta Foruak kaleetako biltzaileak berritzea.
- Arkauteko ponpaketa ekipoak eguneratu eta ordeztea.
- Vitoria-Gasteizko hiriguneko ponpaketen mantentze prebentibo eta zuzentzailea kontratatzea.
- Estolderiako GISa amaitzea eta abian jartzea.
- Egikaritzeko proiektua eta baldintzen plegua idaztea zein ondorengo kontratazioa egitea, Otazuko ur zikinak Vitoria-Gasteizko saneamenduko sistemara bideratzeko hodia eraikitzeko, Arkaiako ur zikinak ponpatzeko mekanismoaren bidez.
- Egikaritzeko proiektua eta baldintzen plegua nahiz ondorengo kontratazio, gauzapean eta amaiera, Mendigurenen fosa bat kentzeko obrarako. Gainera, ur zikinak eta euri urak banatzeko sarearen egikaritzeko proiektua ere gauzatuko da.
- Egikaritzeko proiektua eta baldintzen plegua nahiz Arinizeko saneamendu sarea, Jundizko saneamenduko sare berrira lotzeko ondorengo kontratazioa idaztea.
- Gereñako batzar administratiboko lohi aktiboen araztegia abian jartzea.
- Landa Eremuko Gida Plana amaitzea
- “Vitoria-Gasteizko ur-ziklo integralean etxeko uren kutsatzaile arriskutsuen kudeaketa iraunkorrean herritarrek ere erantzukizunez jarduteko Zuzentarauak” izenburupeko ikerketa amaitzea eta aurkeztea.

2013rako aurreikusitako jarduerak

- Otazuko ur zikinak, Arkaiako ur zikinak ponpatzeko mekanismoaren bidez, Vitoria-Gasteizko saneamenduko sistemara bideratzeko hodia eraikitzeko obra egitea eta amaitzea.
- Arinizeko saneamendu sarea Jundizeko saneamendu sare berriari lotzeko obra egitea eta amaitzea.
- Mendozako estolderiako sareak berritzeko proiektua idaztea, lizitazioa egitea eta obrak hastea, euri urak eta ur zikinak berezita, eta Batzorde Administratiboarentzako araztegia eraikitzea.
- Gometxako estolderia sarea berritzeko obretarako proiektua idaztea, lizitazioa egitea, esleitzea eta guztiz egitea, euri urak eta ur zikinak berezita eta Batzorde Administratiboarentzako telefonoaren eta elektrizitatearen lineak lurperatzea.
- Amaritako Batzorde Administratiboarentzako araztegia eraikitzeko obrarako proiektua idaztea, lizitazioa egitea eta esleitzea.
- Vitoria-Gasteizko saneamenduko sistemetan dauden ponpaketa estazioak eta bere araztegiak monitorizatu, kudeatu, kontrolatu eta ikuskatzeko sistemaren baldintzen plegua idaztea, lizitazioa egitea, adjudikatzea eta gauzatzea.

03.5 Ur zikinen arazketa

Tratamenduaren edukiera:
 17.500 m³/h (lehen mailakoa)
 5.000 m³/h (biologikoa)
Arazketaren gehieneko edukiera: 43.800.000 m³
Kutsadura karga baliokidea: 480.000 He
Lanean emandako urteak: 27

Krispiñako Ur Zikinen Araztegia (UZA) Krispiña Aldi Baterako Enpresa Elkarrean (ABEE) ustiatzen du, AMVISAREN ikuskaritzapean.

Ustiapen datuak (2012)	
Tratatutako ur bolumena, guztira	32.879.995 m³
Hilean araztutako gehieneko bolumena (maiatza)	1.993.241 m ³
Hilean araztutako gutxieneko bolumena (abuztua)	1.771.758 m ³
Erreaktiboaren kontsumoa	
Polielektrolitoa	42.750 kg
Malutatzailea (DKFLOC 1018)	266.740 kg
Kloruro ferrikoa	894.520 kg
Edateko uraren kontsumoa prozesuetan (purgak, konpentsazioak, garbiketak)	604 m³
Birsortutako uraren kontsumoa	855.293 m³
Energia kontsumoa	9.315.328 KWh
Sortutako biogasa	4.234 Nm³ eguneko
Sortutako energia	4.479.656 KWh
Sortutako hondakinak	
Hondakin orokorrak (aurretratamendua eta bypassa)	1.499,7 Tn
Koipeak	1,9 Tn
Biosolidoak/Lohi deshidratatuak	13.952,2 Tn
Lohien lehortasuna	%26

2012. urtean Krispiñako UZAn egindako jarduketak nagusiak:

- Isurtzeko baimena berritzea.
- Euri urak tratatzeko instalazioa abian jartzea (Vitoria-Gasteizko Ura Berrerabiltzeko eta Euri Ura Tratatzeke Planaren 1. fasea).
- Aurreikusitako inbertsioen gauzapena: MAS 711 alarmak monitorizatzeko sistema ezartzea, upel biologikoa kanpotik birbideratzeko ponpetarako; 1. putzu biologikoaren barne birbideratzea aldatzeko lanak; turbokonpresoreetako olio zirkuitua aire bidez hozteko sistema ezartzea; 2. digestorearen bero trukagailua aldatzea; 661/2007 Errege Dekretuaren arabera kogenerazioan Dena-Dena modalitatea erabiltzeko asmoz, neurtzeko sistema ezartzea,.

Araztutako ura

Lohi deshidratatuak eramandako lekua (% t)

Krispiñako UZAn tratatutako ur bolumenaren bilakaera (Hm³)

UZAn tratatutako emariak hilabeteka			
